

Komunikazio proiektuen eta bezeroen arduraduna

Honako galdera hauei baiezko erantzuna ematen badiezu, **hauxe da zure lekua**:

- Bezeroen nahiak eta beharrak identifikatzeko gai zara?
- Komunikazio proiektuak diseinatzeko gaitasuna duzu?
- Talde lana eta koordinazioa zure gaitasunetako bat da?
- Euskara eta euskalgintza alorrean eroso sentitzen zara?



Zer egingo duzu?

- Iametzaren komertzial estrategiaren diseinuan parte-hartu.
- Bezeroen kudeaketa eta salmenta proposamenak diseinatu: bezero potentzialen identifikazioa, harremanak, eskaintzen prestaketa...
- Komunikazio estrategiak eta proposamenak diseinatu.
- Komunikazio taldearekin koordinatu eta beharren arabera, proiektuetan parte hartu.
- Aukera berriak eta lankidetzaz-ildoak identifikatu.



Bilatzen dugun profila

Gaitasun estrategikoak

- Komunikazio estrategiak diseinatzeko eta planifikatzeko gaitasuna.
- Bezeroen beharrak aztertzeko eta helburu komunikatiboak identifikatzeko trebetasuna.
- Proiektu baten ikuspegi orokorra izateko eta lehentasunak ezartzeko ahalmena.

Harreman eta gaitasun komertzialak

- Bezeroekin harreman hurbil eta eraginkorrak eraikitzeko gaitasuna.
- Salmenta-prozesuan parte hartzeko eta aukera berriak identifikatzeko jarrera.
- Proposamenak ahoz zein idatziz argudiatzeko eta defendatzeko gaitasuna.
- Negoziaziorako trebetasuna.

Komunikazio gaitasunak

- Euskarazko komunikazio maila oso ona, ahoz zein idatziz (C1 edo C2).
- Gaztelaniaz eta ahal bada ingelesez komunikatzeko gaitasuna.
- Ideiak modu argi, ulergarri eta egokituan adierazteko trebetasuna.

Antolaketa eta talde lana

- Proiektu anitz aldi berean kudeatzeko antolaketa-gaitasuna.
- Taldean lan egiteko eta beste profilekin koordinatzeko trebetasuna.
- Ekimen propioa eta erantzukizuna hartzeko jarrera.

Jarrera eta balioak

- Euskalgintzarekiko eta euskarazko komunikazioarekiko konpromisoa.
- Ikasteko gogoia eta egokitze gaitasuna.
- Jarrera proaktiboa, autonomia eta konponbideetara bideratua.



Eskaintzen duguna

- Lanaldi osoko kontratua.
- Proiektu bizi bateko eta diziplina anitzeko lan-talde batean integratzea.
- Ordutegi malgua eta eredu mistoa: presentziala eta telelana.
- Euskara, software librea, parte-hartzea eta berdintasuna ardatz dituen lan-ingurunea.



Interesatuta?

Bidali zure curriculuma "komertziala-komunikazioa" erreferentzia adieraziz **curriculum@iametza.eus** helbidera.

**lametza: euskarazko komunikazio
integrala, gertukoa eta jasangarria**